

Baleike


Zumaiako herri aldizkaria. 28. zenb. 1996ko urria. 100 pzta.

Alberdi eta Enbil



PROFESIONALA
Ki

*Ixiar
Arrizabalaga:
Kartzelatik
hizketan*



*Gorostiaga:
Zumaiako
industri
etorkizuna*

Erreportaia

**Karmeldarrek
125. urteurrena
ospatu dute**


Baleike

**Buzoia kalean
daukazue:
idatzi gutunak,
oharrak...**

Ze berri?


**Wiron 2:
primerako,
bigarren
botadura**

Argazkiko batek
utzitako argazkia



ESKOLA TXIKIAN

Goiko argazkian ageri diren umeak aspaldi kozkortu ziren eta gainera, duela gutxi hasi dira beraiek ere zumaiar berriak munduratzen. M^a Antonia Azkue eta Lide Uranga andereñoek zainduta hor ditugu, besteak beste, Carballo, Abel Yeregi, Mikel Aldalur, Iñaki Osa, Antxon Elosua, Paxkualenekoa, Motxenekoa, Fran Alvarez "Hagi", Lopetegi, Rosi Antia, Luis Mari Azkue, Joseba Ossa, Felipe Agirre, Charo Lopez...



Argitarapen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

 **kutxa** fundazioa
fundación

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Argitaratzailea



Zumaiako Udalak diruz
lagunduriko aldizkaria



**BALEIKE
HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea
tfnoa: 86 10 56
faxes: 861742

argitaratzailea
**ZUMAIKO
GAZTE
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Eneko Dorronsoro
Xabier Azkue
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta
Juan Luis Romatet
kolaboratzaileak
GEG, Natur Taldea,
Miriam Romatet, Aintzane
eta konpainia, Koldo Landaluce,
Imanol Manterola, Jon
Manzisor, Dani Carballo,
Josu Egaña eta Arantxa
Eizagirre, Ainhoa Iturbe,
Mattin, J.J. Aizpurua, Bertil
Lagerström, e.a.

publizitatea
861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.
(Zubillaga - Oñati)

tirada: 900 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.

Erreportaia
**Karmeldarren
125.
urteurrena**
....22. or.



Ze berri?
**Xabier
Kalparsorori
omenaldia**
...9 or.



Ze berri?
**Wiron 2
itsasuntzia
moilan dago**
.... 7 or.

**Nola aldatzen diren
gauzak...**

Bazen behin, orain ez urte asko, zumaiar gazte kuadrila bat. Taosa boys izandakoak (pioneroak agian), mundua jan behar zutenak, askatasunaren balore ikutuezinaren pean hamaikak eta bi egiten zituztenak, eta nola ez, parrandero latzak zirenak. Bonifazio Etxegarai kaleko bolera zaharrearantz sartzeko ere, ia-ia beren baimena eskatu behar zitzaizkien jendilajea.

Jenerazio bat markatu zutenak, eta orain txipiroien jenerazio berri bati paso eman diotenak. Jokin baloi batekin jaio zen, Maddi "izan zeu" hippy baten sandalia batekin, Txupakitari buruz berriz zer esan... Ah, eta idazten ari den hitzontzi honengandik oso hurbil dagoen elefante batek ere arrantzatu omen du beste txibi bat. Hau da hau marea tokatu dena, guztiak txalupa berdinean sartu zaretela dirudi. Bayo and company, eta zuek zer? Abestiak dioen bezala, nola aldatzen diren gauzak, nola aldatzen diren gauzak, kamaradak!!!



**Igor Uranga
"Mofli"**



**PREMAIAZKO
TELEFONOAK:**

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

AMA, NI ARTISTA NAIZ!


44.876.987 "Artistagaiari"
erantzunez:

Arte Taldea asko poztu da datorren urterako Hurrengo Tabernarte ekintzan beste partaidea dugula jakitean. Gainera, bere burua artistagai duenak taberna bat baino gehiago betetzeko ideiak dituela konturatu gara: "ibilitako kaltzetinen kolekzioa" (Tapias), "kutzara eta tenedoreekin egindako konbinaketa zoragarria" (Duchamp), eta hurrengo uda iritsi baino lehen okurrituko zaizkionak! Hala ere jakin dezala, txokoa ez, taberna gordeko diogula parte hartu nahi badu. Sormenaren munduan ongi etorria izango dela, eta ez dela gehiegi ulertu beharrik arteaz disfrutatzeko.

Bestalde, polita hitza aipatzen duenez, esan behar diogu, artea ez dela beti polita, gure aurreritzi barruan dagoen ideia da hori, artea espresioarekin, ezagupenarekin edo plazer estetikoarekin lotuta dagoela eta ez horrenbeste polita denarekin. Artista izan nahi baduzu, izan zaitez, ez dago artista izendatzeko bulegorik, ez dituzte artisten karnetik saltzen (edo agian bai), artista izatea norberaren esku dago eta eskutitzan ikusten denez artista zarela iruditzen zaigu, ez artistagai.

Azkenik, Arte Taldeko edozeini galdetzeko arazoa, ez dut uste analfabetotzat hartuko zaitugulako bildurra denik, lasai asko galdetu nahi duzuna! Guk ere ez ditugu gauzak oso argi (arte kontuan inork ez, horrela izan behar du) eta eztabaidak asko

GUTUNAK



Atal honetan zumaiarron ohar, iritzi, kexa guztiak bildu eta argitaratu nahi genituzke. Idatzi beldurrik gabe, baina kontuan izan orrialde batekoa baino laburragoa izatea komeni dela laburtu edo baztertu beharrik izan ez dezagun. Ezizenarekin sinatu daitezke gutunak, baina beti ere egilearen identitatea zein den jakinaren gainean egon beharko degu. Gutuna Forondara bidali edota Erribera kaleko buzoian utz dezakezu.

aberasten du.

Zure berri izango dugulakoan nahi duzunerarte, Arte Taldeko bileretara hurbilduko zarela espero dugu, (zure kexen zai gaude).

Zumaiako Arte taldea



ZUMAIAKO APAREJADOREARI

Esaten dutenez, zentzudunek norberaren akatsak onartzen omen dituzte. Itxura denez, gure udal aparejadoreak ez du esaera honen berri izan.

Duela hilabete inguru udaletxera joan nintzen oso gaizki dauden ranpa batzuei buruz kexatzera, errepideko asfaltoa ranpa bera baino gorago dagoelako. Ranpa hori zubi txikian dago, juxtu ibaiko espalaira sartzean. Ranpa hori oso gaizki dago eta izugarritzko zuloa osatzen da.

Joan omen zen aparejadore jauna ranpa nola zegoen ikustera eta "nahiko ondo dago" esan zuen. Ea, nola esan dezake nahiko ondo dagoela bera gurpil-aulki batean inoiz ibili ez bada? Nire ustez egunero gurpil-aulki batean gabiltzanoi entzun beharko gintuzke. Ni ez naiz kexatzeagatik kexatzen, gauzak gaizki daudelako kexatzen naiz, eta nahiago nuke udaletxean kexatu beharrik ez dudana eguna iritsiko balitz. Oraintxe bertan, duela bi hilabete edo, monjetatik ehun metrora zebrabide bat egin dute eta ranparik gabe, eta zebrabide guztietan egon behar dira ranpak, hemen eta Pekinen. Narrondo pasealeku guztian ez dute itsuentzako baldosarik jarri. Badakit aparejadore jaunaren arabera Zumaiian ez dagoela itsurik, zorionez Artetxe jauna, baina badago bista oso eskasa duen jendea, eta jende hori egongo ez balitz ere Zumaiara etor litekeen itsu asko dago munduan. Ranpen gaira itzuliz, nahi duzunean utziko dizut nire karroa egun bakar batez Zumaiako ranpa batzuk ondo ala gaizki dauden ikus dezazun. Zutik dena perfektua ikusten da, baina asko aldatzen da habeharrez eserita joan beharra dagoenean.

J.M. Manzidor.

**Habana**
auto
Mekanika eta
karrozeria
Axular ibiltokia, 14 - 86 00 70
Zumaia

ROSI
GARBIKETAK
• Elxeak eta dendak
• Enpresa eta auza lanak
• Errapa garbiketa eta tintaketa
Basadi 3-A
Tlf. 861670



BELARDENDA
SIWA
Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012





Bertso Eskola

OIHAN LIZASO

Oraintxe dela hamabost urte nahiz eta ezin zehaztu Zumaian bazan bertso eskola ta ezin degu ahaztu oraindik ere mantentzen degu ta oso ondo tratatu baina Jon Maia ta hauen aldean ezin gera konparatu.

Bertso eskolan Andoni Egaña ikusten deu oso urrun Bertsolaria izan nahi bada baldintzak daude gaur egun aurrena hazia lortu behar da eta gero ernaltzen jun hazitxo hori denok daukagu ea ba ernaltzen degun.



Karlos del Pilar


ZEEE??

Egunkarietan azaltzen diren atal desberdinen artean gehienetakoa atsegin dudana iritzi pertsonalen artikuluek osatzen dutena da. Jende askok (mutilen artean batez ere) zuzenean kirolen atalera jotzen duen bitartean nere aurrengo begirada artikuluko horiei zuzentzen diet aipatzen duten gaia interesgarria den ala ez aztertzeko, eta egia esan denetarik aurkitzen da: politikari buruzkoak, kirol munduko polemikak, gizarte arazoak.... Aldian behin, irakurtzen ari zarenarekin bat zatozela pentsatzen duzu (neuk sinatuko nuke komarik aldatu gabe) eta ideia lapurtu balizute bezala sentitzen zara, duela egun batzuk gertatu zaidan bezala.

Artikuluak ikutzen zuen gaia soinuak gizartearen duen eragina zen (kutsadura akustikoa, teknikoek dioten bezala) ondorio bezala gortasuna ezaugarritzat duen belaunaldia datorkigula esanez, eta uste dut ez zaiola arrazoirik falta idatzi duenari. Tamalez, gure eguneroko bizitzan soinua edonondik datorkigu belarri zulara eta jadanik normalizat jotzen dugu normala ez dena: garraio bide gehienek zarata, taberna askotako musika ozena (aldamenekoarekin hitz egitean lepoko zaina lehertzeko zorian jartzen diguna), lan tresnen iskanbila,...

Guzti honen ondorioak nabariak dira eta tinpanoa, Euxtakioren tronpa, etab. direlakoak faktura pasatzen hasiak dira. Nork ez du ikusi ezker besoa atean zintzilikatua eta eskuinekoa bolantean duen bitartean uhm-pss, uhm-pss, uhm-pss autoan gustora doan gizarajoa? Noren etxean ez da entzuten auzolagun baten telebista edo musika pletinatik datorren dezibelio karroka? Eta txikiteoan ematen diren oihuz beteriko eztabaidak elkarrengandik metro batera dauden lagunen artean?

Betidanik baju xamar hitz egiten dudana pertsona naizela iruditu zait, kontuan izanik geure kaletan «homo bullosus» delakoa nagusi dela (IEEPA HI!! AUPA MOTEL!!) baina oraintxe zalantza egiten hasia nago ahots arazoa zena belarri arazoa ez ote den.



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

ITZURUN
KIROLAK

Amaiako plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAIA

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak



Zurbillo 4
Tlf: 861407



Udalak Gorostiaga poligonoko zati handiena erosi du enpresei eskeintzeko

Lur industrialak eskeini ahal izateko burutu da erosketa hau

Udalak Gorostiaga poligonoko 179.000 m² erosi berriak ditu, inguruko enpresei behingoz lur industrialak eskeini ahal izateko. Hasieran Diputazioak interesa azaldu bazuen ere, ez du parte hartu nahi izan, eta beraz, Udalak bere gain hartu du operazioaren kostu guztiak: 250 milioi (+BEZ)

Erositako 179.000 m² horiek, poligonoren %82a dira, guztira 217.000 m² baititu. Erositako lur eremu honetatik, 89.000 m² dira eraikitzeak. Esan bezala, 250 milioi ordainduko dizkio Udalak Banco de Santanderri. Akordioa urriaren lehen sinatu zen, eta Ricardo Peña alkatearen ustez, "oso operazio ona izan da. Bazen Zumaia horrelako lur industrialak izateko garaia". Operazioa Zumaia Lantzen elkarte anonimoaren bidez egin da, eta alkatearen hitzetan, "ez ditu Udalaren aurrekontuak hipotekatuko".

Gorostiaga poligonoa azken 30 urteotan helburu espekulatiboaren menpean egon da, eta Ricardo Peña uste du bazela "ordua administrazio publikoak eskua sartzeko".

Helburua argi dago: Zumaia enpresei lur industrial egoki eta



Udaleko eta Banco de Santander-eko ordezkariak, sinatzeko unean.

konpetitiboa eskeini ahal izatea. "Zumaian badira hazi nahi duten enpresak, baina tokia falta zaie. Gainera, herrian barruan dauden hainbat tailerrei pabilioiak eskeiniko dizkiegu".

Diputazioa kanpoan geratu da

Irailaren 24an *El Diario Vasco* egunkariak ondokoa publikatu zuen: "Diputazioak lurra eskeiniko du enpresa handiak erakartzeko". Zestoa eta Zumaia aipatzen ziren bertan. Alkateak esan digunez, "hau ez da egia. Diputazioa hasieran interesaturik agertu zen, baina

azkenean ez digu perro-txikirik eman".

El Diario Vasco berriaren bertan onartzen du Guillermo Echenique ekonomia arduradunak 97rako ez dagoela horretarako diru kopururik zehaztua. "Berri honen publikazioak kolokan jarri zuen Udalaren operazioa", alkatearen esanetan. Azkar mugitu behar izan dute Diputazioak Arroan dituen asmoei aurrea hartzeko. "Diputazioak Arroan lur industrial erraldoia sortzeko asmoa du, eta horrekin konpetitza oso zaila izango zitzaigunez, aurrea hartzeko erabakia hartu dugu" ■

*Jesuskoa
Jatetxea*




Tfnoa 86 17 39 • C/Itia - Zumaia

Paki 
Belardenda

OSASUN NATURALA
Erribera kalea 2, Tf: 143156 - 86 22 44

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

laburrak

Forondako ganbara


Foronda kultur etxeko ganbaran dauden lokalak erabiltzeko interesa duten taldeei dei egiten zaie urriaren 18a baino lehen beren eskaerak aurkez ditzaten. Taldearen beharrak zein diren zehaztu beharko da eta edozein zalantza argitzeko Foronda bertara dei dezakezue.

650. urteurrena

Datorren urtean beteko dira 650 urte Zumaia sortu zela. Hau dela eta, udalaren kultur batzordeak egitarau zabal bat osatu nahi du herriko talde ezberdinen laguntzarekin.

Honi buruz hitz egiteko bilera baterako deia egin du kultur batzordeak. Bilera hau urriaren 18an izango da, ostirala, arratsaldeko 7etan, Foronda kultur etxean.

Wiron 2 itsasuntziaren botadura



Irailaren 27an irten zen Balenciaga Untziolatik WIRON2 untzia, inolako arazorik gabe. Xirimiria ari zuen, baina hala ere jende ugari inguratu zen Gernika parke aldera, hain ikusgarria izaten den botadura ikustera.



JOAN DIRA SANMIGELAK ERE.

Primerako eguraldia eta giro ederra izan zen aurreko asteburuan Artadin antolatutako ekitaldi guztietan.

EGOKI

ERLOJU DENDA

E.Gurrutxaga plaza, 6
ZUMAIA

AZKUE

Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780

IZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083



FEDÉ PINTURAK

Marmol imitazioa - Gotele -
Pikatuak - Enpapelatuak -
Sintasola - Moldurak eskuz
margotzen dira - Zilar eta urre
kolorea ematen da.

Arritokieta 12, 2. ezk Tel. 862241

Maiaur



Joseba Ossak liburu bat kaleratu du

Uda honetan ikusi du argia Joseba Ossak idatzitako liburuak, baina duela gutxi banatu da liburudendatan. *Inari, Laponiako lore* da liburuaren izenburua eta Alfaguara-



Zubia argitaletxeak atera du. Batez ere hamar urtetik gorako haurrentzat zuzendutako liburu da eta Josebak berak idatzitako lehenengoa da, nahiz eta lehendik ere berak egindako literatur itzulpen batzuk ere kalean hor dauden.

Inari izeneko neskatxa laponiarraren gorabeherak kontatzen dira liburu polit honetan eta herriko liburudendatan ere aurki dezakezu, oso merke. ■



laburrak

Ikasleen autobusa Donostiara

Pasa den ikasturteko saio eta saltsen ondoren, Aldurrek ezer ez antolatzea erabaki du. Aintzirakoek ordea (Zarautz), zerbitzuarekin jarraituko dute urriaren 1etik aurrera, baina Getariatik irtenda. Beraz, zumaiarrak aurten ere zerbitzurik gabe daude. Zumaiaitik jarri ahal izateko beharrezkoa da 50 bat lagun elkartzea. Aukera handia dago ordutegiari dagokionez eta zerbitzuak 5.800 balio du hilero (2.900 erdia). Azarotik aurrera Zumaiaitik zerbitzu hau izatea nahi baduzu eman lehenbailehen izena, telefonoa eta Donostian duzun ordutegiaren berri 861224 telefonora.

Arantxak Arantzazura

Urriaren 19an Arantxa izena duten Euskal Herriko emakumeekin erromesaldi bat burutu nahi da Arantzazun. Bertan bazkari eder bat antolatu da, mezaren nagusiaren ondoren. Bazkaria eta autobusa 3.500 pezeta ordaindu behar dira, eta autobusa Zumaian 7:45etan irtengo da, Gurutze Gorriaren aurretik. Urriaren 11 baino lehenago eman behar da izena eta 781304 telefonoan esango dizute nola egin behar den.



BUZOIA JARRI DUGU!! Azkenean jarri dugu Erribera kalean gure Baleike-buzoia. Hilaren 5ean inauguratu genuen, agintaririk gabeko ekitaldi xume baten bidez. Hemendik aurrera zure ohar, mezu, gutun, proposamen eta lehiaketako orriak gure eskuetara iristeko ez duzu Forondaraino igo beharrik izango.

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2

ERTZ
INFORMATIKA
ORDENAGAILUAK
MULTIMEDIA
• Urria-Abendua
WINDOWS, WORD
• EXCEL
Mendaro-Mariñela 3, TEL./Fax. 14 33 95

Xabier Kalparsoro "Txato" gogoan



Love eskeintza ere egin zitzaion "Txato"-ri.

Irailaren 26an hiru urte bete ziren Xabier Kalparsoro "Txato" hil zutela. Hau dela eta Dick Turpin kolektiboak zenbait ekitaldi antolatu zituen. Horrela 26an bertan omenaldi bero bat egin zitzaion Algorriko labarretan, eta chun lagun baino gehiago bildu ziren "Txato"-ren errautsak gordetzen diren oroitariaren inguruan.

Hurrengo egunean, Gudari egunean kontzentrazio bat egin zen eta larunbatean, irailaren 28an burutu zen ekitaldi politikoan ehundaka lagun bildu ziren. Bertsoak, aureskua, txalaparta doinuak, hitzaldiak eta beste zenbait gauza izan ziren, eta honen amaieran manifestazio batek herriko kaleak zeharkatu zituen. ■



Horma-irudi eder bat egin zen omenaldirako.

laburrak

37 urte

Patxi Aristiri

Iraillean epaitu zuten Madrilen Patxi Aristi preso politiko zumaiarra eta sententzia ere duela gutxi jakin da. Honen arabera 37 urteko espetxe zigorra ezarri diote Patxiri. Gainera, presoak Euskal Herrira hurbiltzearen kontua hain pil-pilpilean dagoen une honetan Caceres aldeko kartzela batera eraman dute Patxi.

Eusko Jaurlaritzaren laguntza

Une hauetan Eusko Jaurlaritzak euskarazko aldizkariari ematen dizkien dirulaguntzak eskatzeko tramiteak betetzen ari gara gu ere, eta hau izan da besteak beste, zenbaki honek dakarren atzerapena eragin duena.

Dirulaguntza hau jasoko bagenu, ordenagailu ekipo berria erosteko aukera izango genuke, eta era honetan aldizkariaren kalitatea neurri handi batean hobetzeko modua izango genuke.

Dirulaguntza eskuratzen dugun ala ez, zenbat emango diguten, guztiaren berri ematen saiatuko gara hurrengo hilabeteetan.



ZUMAI A



AUTO-ESKOLA



- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAIA



TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

1987ko ekainaren 15eko goizeko hiruretan etxean sartu ziren bere bila. Harrezkero hainbat kartzela pasa behar izan ditu, azkena Zumaiatik 650 kilometro-tara dagoelarik. Ez gara horren urruti joan berarekin hitz egiteko, orain Carabanchel-


Ixiar Arrizabalaga

en baitago Patxi Aristiren epaiketan, baina hala ere, Zestoako etxetik eraman zutenetik bere bizitza nolakoa izan den, eta presoek zein borroka eramaten ari diren argitu ahal izan digu 35 urteko zumaiar gazte honek.

“Azken 6 urtetan 2 minutu ikusi dut senarra”

ASPALDI ATXILOTU ZINTUZTEN. NOLA ALDATU DA GARAI BATETIK HONA PRESOEN EGOERA?

Ni atxilotu ninduten garaian, emakumezko preso guztiak espetxe batean geunden, Carabanchel-en. Egindako borrokei esker, duintasunez bizitzeko baldintza minimo batzuk lortu genituen. Gainera, han geunden guztiak euskaldunak ginenez antzeko ohiturak genituen, hizkuntza bera, helburu politiko berberak, kultura bera... beraz, nahiz eta espetxean egon eta herritik nahiko urrun, euskaldun giroan bizi ginen eta herriarekin genuen lotura mantentzen genuen.



Bederatzi urte hauetan espetxe asko ezagutu ditu.

AZKEN ALDIAN, ASKO ENTZUTEN DIRA HAINBAT KONTU: DISPERSIOA, EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA EKARRI BEHARRA.... AZALDU ZUK NOLA IKUSTEN DUZUN HORI KARTZELA BARRUTIK.

1989 urtean PSOEn eskutik eta EAJren laguntza eta babes osoarekin “Dispertsio politika” aplikatu ziguten. EA, IU eta PP ere zeharo ados ziren dispertsio politikarekin, baina EAJ eta PSOE izan ziren dispertsioaren diseinuan zuzenki parte hartu zutenak. Hala ere, partidu hauek guztiak dute bere erantzukizuna “Dispertsio politika” honekin. Dispertsio politika honen helburu bakarra euskal preso politikoak suntsitzea da. Politikoki edota fisikoki suntsitzea. Oso argi dute denak balio zuela/duela helburu hau lortzeko.

“Dispertsio politikak, orokorrean, porrot egin du”

BIXITAK EGITEKO ERE BESTE AUKERA BATZUK EGONGO ZIREN...

Bai noski, senideentzat ere bazuen bere alde ona, zeren denok espetxe batean geundenez, bixitak egiteko autobusak antolatzen ziren. Honek suposatzen zuen diru arloan,

kotxean baino askoz merkeago irtetzen zitzaie; ez zutela gau guztia gidatzen pasa behar; bixitan edo bidaian zehar arazoren bat gertatu z gero, beste familiarren babesa eta laguntza zutela eta abar. Lagunen bixitak edukitzeko ere ez zen oztoporik egoten, beraz, nahiz eta Zumaiatik urruti egon, bertan egunero gertatzen ziren gauzez enteratuta egoten nintzen eta lagunekin lotura eta kontaktu minimo bat edukitzeko aukera nuen.

ETA ERAGINIK IZAN AHAL DU?

Une honetan esan dezaket dispertsio politika honek, orokorrean porrot egin diela, baina bere eragina denok pairatu behar izan dugu eta dugu zeren oraindik dispertsio politika hau aplikatzen ari baitzaigu (preso

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

MATE
ILEAPAINDEGIA



Berezitasuna ileen sendabidean

Amaiako plaza z/g Tif: 143278



SUKALDEKO ALTZARIAK

DORNUTEGI
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Bisabi Auzategia, 10 behean
Telefona: 302051

20750 ZUMAILA
(Gipuzkoa)

gaudeno eta gure senideei). Niri espetxeak barrutik ezagutzea tokatu zait eta etxekoei berriz kanpotik, zeren, dispertsioarekin batera, lagun bixitak debekatu baitzituzten, beraz nire lotura kalearekin ere bai, eta bixita guztiak familiari mugatu zitzaizkion.

“Bederatzi urte hauetan bost bat pasako nituen bakarrik, eta lau bat beste kide euskaldun batekin



82ko San Pedroak. Jaiak bai borroka ere bai!

ESPETXE EZBERDINETAN IZAN ZARELA AIPATU DUZU. ZEINTZUTAN?

Aipatu dudan Carabanchel-en ondoren, Yeserias etorri zen. Bertan 6 hilabete egon nintzen. Aurrengo hilabetea beste kide batekin eta beste bostak bakarrik. Bertan, astean bi eskutitz bakarrik idatzi nitzakeen, eta bai bi eskutitz horiek eta baita kaletik jasotzen nituen guztiak ere irakurtzen zizkidaten. Gainera, debekatuta nituen etxekoekin "vis a vis" komunikazioak. Hau guztia kenduta, esan dezaket nire bizi baldintzak beste presa arrunten antzekoak zirela. Baina handik Las Palmas-eko "Salto del Negro" espetxera eraman ninduten, eta tartean Puerto de Santa Marian pasa nituen 2 hilabete.

GARAI LATZAK IZAN ZIREN SALTO DEL NEGROKOAK EZTA?

Salto del Negroko espetxean 2 urte eta 9 hilabete pasa nituen eta esan dezaket han bai ezagutu nuela isolamendua zer den, eta baita ere

sarritan inpotentzia sentitu. Bertan zegoen emakume euskaldun bakarra neu nintzen. Alde batetik kontutan eduki behar da Las Palmas-eko urruntasuna, hara joateko familiak abioiz joan beharra zuen, diru aldetik honek suposatzen duenarekin, zeren ez baita bakarrik bidaiaren kostua, baizik eta honi aste horretako kostuak gehitu behar zaizkio: hotela, bazkariak, espetxerako autobusa, eta abar. Hau dena 40 minutu komunikatzeko, oso gaizki entzuten zen lokutorio batean eta kristal zikin eta lodi bat tartean genuelarik.

Bestetik, bertako bizi baldintzak daude. Zelda barruan 22 ordu pasa behar nituen, bakarrik. Patiora 2-ordu ateratzen ninduten eta orduan ere bakarrik egoten nintzen, beraz asteak pasatzen nituen beste presa bat ikusi gabe eta inorekin hitz egin gabe. Beste preso bat ikusteko aukera bakarra, batenbat zigortuz gero patioko orduan izaten zen. Baten baten ahotsa entzuteko aukera bakarra nire

buruarekin hitz egitea izaten zen.

Eskutitzak ere astean 2 idaztera mugatuta nengoen eta noski, bai nik idatzirikoak eta baita kaletik jasotzen nituen guztiak, neri eman aurretik irakurriak izaten ziren. Konprobatuta daukat baita ere, urte hauetan guztietan eskutitz multzo handi bat ez dela nire eskuetara iritsi.

ETA FUNTZIONARIEK, NOLA TRATATU ZINTUZTEN?

Nahiz eta beste presoekin kontakturik ez eduki, egunero egiten zidaten bai zeldaren miaketa, bai miaketa pertsonala, azken hau neu biluztuz. Kartzeleroek bazekiten ez nuela inolako kontakturik, ez espetxe barruko inorekin, ez eta kanpokoekin ere, beraz ezin nuela ezer "ilegala" eduki, ez gainean, ez zeldan; baina hori ez zitzaien axola. Azken finean beraien helburua ez zen "seguritate neurriak" mantentzea esaten zuten bezala, baizik eta ni umilatzea, eta uneoro han nork agintzen zuen

JOSEBA OSSA
- ITZULPENAK -
 EUSKARA-GAZTELERA-
 KATALANA-INGELES-
 FRANTSESA
 Tel / fax: 148065

ekin
 ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
 ISTALAZIO MUSIKALAK
 AKUMULADOREAK
 ALARMAK
 ANTENAK
 PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
 TAILERRA: Lavretxi, 10 behe 1º - Telf. 14 34 74
 20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)

INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA

argi uztea, horregatik biluzten ninduten egunean bi edo hiru aldiz.

BERAZ, FUNTZIONARIEN TRATUA EZ DA BEHAR BEZALAKOA IZATEN?

Euskal preso politikoak jasaten ari garen umilazioak, jipoiak, mesprezuak eta abar kartzeleroen eskuetatik zuzenki jasotzen ari gara. Gero beraiek esaten dute "beraien lana betetzera bakarrik mugatzen direla". Hau gezurra da, zuzenki parte hartzen hari baitira euskal preso politikoan aurkako errepresioan eta gu gara horren lekuko zuzenak.

“Presoek ez dugu eskubiderik ezertarako”

SALTO DEL NEGRO-TIK BONXERA PASA ZINTUZTIEN EZTA?

Bai, une honetan ia lau urte daramatzat Bonxe-ko (Lugo) espetxean. Bizi baldintzak ez dira oso

gogorrak eta duintasun minimo batekin bizitzeko aukera dut nahiz eta aurrenengo hiru urteetan bakarrik egon. Azkenengo urtea beste kide batekin nago. Berriro ere lagun bixitak eduki ditzaket eta esan dezaket Zumaia eta zumaiarrekin nuen lotura berreskuratzen ari naizela. Hala ere azken 7 urteetako eragina nabarmena da. Traba gehiegi jarri baitigute lotura hori mantentzeko.

BERAZ, BADUZU ZUMAIA GERTATZEN DENAREN BERRI.

Oztopo guztien gainetik herriko berriak jasotzen jarraitu dut, nahiz eta tantaka izan, eta hemendik, biziki eskertzen diet bai zumaiarrei, bai zestoarrei eman didaten laguntza. Nahiz eta urruti egon beti adierazi didaten (eskutitzen bidez gehienetan, beste aukerarik ez zegoelako) nere ondoan zeudela. Herritik gertu sentiarazi didate une guztietan. Eta lagun bixitak jasotzeko baimena

eduki dudanean hor egon dira astero astero, Madrilen edo Lugon 40 minutu nirekin egoteko prest.

Hala ere, kalearekin harreman normal bat mantentzea zaila egiten zaigu, zeren, oso kontuan edukitzen baitute herri berdineko presoak espetxe berdinean ez edukitzeko nahiz eta hauen artean bikoteren bat egon.

“Euskaldunak garez Euskal Herriko espetxetan egon beharko genuke”

AZKEN HAU DA ZURE KASUA EZTA? ZEREN ZURE SENARRA ERE ESPETXERATURIK BAITAGO.

Bai, Juan Mari eta ni espetxeratu gintuztenetik ez gara sekula batera egon. Aurrenengo hiru urtetan pare bat aldiz ikusi ginen, 5 bat minutu epaiketak genituen egunetan. Geroztik 6 urte pasa dugu elkar ikusi gabe. Orain dela gutxi ikusi gara berriro, Patxi-ren epaiketan hain zuzen, epaileak elkar ikusteko 2 minutuko baimena eman baitzigun. Eta ziur egon gure atzean zegoen txakurrak oso ondo kronometratu zituela bi minutu horiek. Geure arteko harremanak eskutitzetara mugatzen dira. Eskutitz horiek guztiak irekita entregatu behar ditugu "zentsura" pasa behar baitute, eta noski erdaraz idatzi behar dugu, beraz, intimitate eza nabarmena da gure erlazioetan, nabarmena den bezala hauek zeharo mugatuak direla eta etsaiaren hizkuntzan erlazioatu behar dugula.



Ixiar beste preso politiko batekin. Salton Ixiar bera bakarrik zen emakume euskaldun bakarra.

TXOKOA



T
B
E
R
N
A

Artadi
Auzoa

86 21 89



inportaturiko erropa
eta artisautza

Basadi 3 Zumaia



AIZPURUA

L
I
B
R
U
D
E
N
D
O
P
A
R
I
A
K

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefona: 861569
20750 ZUMAIA

Teorikoki, presoei askatasun eskubidea bakarrik kentzen zaigu, baina errealitatean ez dugu eskubiderik ezertarako; hau da gure eskubide bakarra une honetan.

ZER EGITEN DUZUE ZUEN EGOERA HOBETZEKO?

Dispertsio politikarekin amaitzeko eta preso guztiak Euskal Herriko espetxeetan elkartzeko, urtarrilaren 15ean borroka berri bat hasi genuen. Euskaldunak garez Euskal Herriko espetxeetan egon beharko genuke, hau da behintzat beraien "Reglamento penitenciarioak" azaltzen duena, beraz, eskatzen ari garen bakarra behingoz legea betetzea da.

“Denok batera borrokatuz gero bakarrik lortuko ditugu gure helburuak”

KALEAN ERE BORROKATZEN DUTE ZUEN ESKUBIDEN ALDE.

Bai. Horre adierazgarri dira "Artzai Onean" Senideak-ek aurrera daraman gose greba, Europako herri ezberdinetan egon diren gose grebak, manifestazioak, sabotaiak... egia esanda gure borrokarekin bakarrik ez genuke ezer lortuko, horregatik behar dugu gure borrokarekin batera kale borroka. Denok batera borrokatuz gero bakarrik lortuko ditugu gure helburuak. Euskal Herriak gobernu espainolarekin daukan gatazkan denon parte hartzea behar da, bakoitzak ahal duen neurri edo mailan



Bi preso sozialekin ageri da Ixiar goian. Hauekin ere ondo konpontzen da.

(maila norberak bere buruari ezartzen diona izaten da), baina denon beharra dago gure herriaren subiranotasuna lortu nahi badugu.

ETA IKUSTEN AHAL DUZU HONENTZAT IRTENBIDERIK?

Borondate falta da arazo bakarra. ETak bere aldetik garbi adierazi du gatazka konpontzeko borondatea: hor dago iaz kaleratu zuen Alternatiba Demokratikoa, eta gobernu espainiarrak, eta baita PNV berak ere baztertu dutena. Garrantzi handikoa da Alternatiba Demokratikoa, benetako bakerako proposamen bat baita.

ZER SUPOSATUKO LIZUEKE EUSKAL HERRIKO ESPETXEETAN ELKARTZEAK?

Euskal Herriko espetxeetan egonez gero, ez lagunek ez etxeok ez lukete horrenbeste kilometro egin beharko gurekin 40 minutu hitz

egiteko, ez zituzten gauak gidatzen pasa beharko eta ez lituzkete beraien bizitzak karreteratan arriskuan jarri beharko, ezin baitugu ahaztu urte hauetan egon diren istripu ugariak (2 hildako, preso baten ama eta laguna, eta zauritu ugari).


“Alternatiba Demokratikoa dago benetako bake bidea”

ZER ESANGO ZENIOKE ZUMAIKO GAZTEEI?

Euskaldun gaztediak bizirik irauten duen bitartean gure herriak baduela etorkizuna, eta gure gazteak soberan ari dira demostratzen bizirik daudela. Beraz, aurrera gazteak!!

AMAITZEKO, ZER BOTATZEN DUZU GEHIEN FALTAN ZUMAITIK?

Zumaiatik zer botatzen dudana faltan? Itsasoa!! ■



NIKOL-ENEA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

DISKO-BAR

Nargi



Alai Auzotegia 2.



OIHANA
URRUZUNO

Jendiak behar baldin badu eta lotsa ematen badio farmazi batera jutia... Baina ondo iruditzen zait.



AINZANE
SAN MARTIN

Ondo. Jende gehio jungo zan estankuak txikiagoak direlako eta farmazietan jende helduagoa egoten dalako.



VANESA
GARCIA

Ondo. Jende askori lotsa ematen baitio farmazietara joatea. Batzuetan farmazeutikoek oztopoak jartzen dizkizute. Hemen Zumaian ez dakit nola izango den, baina beste herrietan hori ikusten da.

Preserbatiboak estankotan ere saltzen hastekoak omen dira. Zer iruditzen zaizu?



KARLOS
AGUADO

Erosi nahi duenak berdin erosiko du toki batean edo bestean. Herri txikietan berdin-berdin fijatuko dira bai farmazeutikoak bai estankeroak.



ANA IGNACIO

Oso ondo. Erosi nahi duenak joaten da, erosten du eta kitto. Gainera kontrolpean badaude berdin da non erosi. Ederra izango zen zulodunak izatea!!



MERTXE
ARGINTXONA

Ederki.



MARIBI GARATE

Berdin zait batian saldu edo bestian saldu. Ondo iruditzen zait.

ARRAIN ETA
MARISKOAK

BARAZKIAK
ETA
AURREZ
PRESTATUTAKO
JAKIAK


7 MARES

7 MARES IZOZTUAK

JUARISTI JATETXEA

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853









Emakumearen orgasmoa

Zergaitik, zergaitik, zergaitik, zergaitik... Zergaitik negar egin... Gorputzean plazerra dago txoko guztietatik... Jakinminenez beteriko gaia dugu orgasmoarena. Lehenik eta behin orgasmoa emakumeari duela gutxi egokitu, saldu, onartu zaion eszitazioaren azken helburua dugu. Baina zer dela eta hainbeste arazo honen inguruan?

Hasieran pozez jaso zen orgasmoaren berria. Denborarekin plazerraren bizipena ahaztu eta orgasmo galduaren bila dabil. Orgasmo modelo baten bila hain zuzen, Ah! Ah! Ah! bukaezin bat sentitu nahian, pelikuletan bezala. Baina ez dago formula magikorik.

Esan beharra daukat orgasmoa ez dela obligazioz eman beharrekoa erlazio garaian. Maitasunean jolasteak ez gaitu nahitanahiez puntual den orgasmora behartzen. Maitasunean jolasteak ez du obligazioz jantzia joan behar. Obligazioak eta preokupazioak ez dio bide ematen plazerrari.

Emakume askok hutsune handia sentitzen dute orgasmora ez direlako iritsi... Hemen badaude sakoneko zenbait arrazoi eta ondo sentitzeko eta disfrutatzeko garaian oso garrantzitsuak direnak. Heziketa, gizartea, kultura eta abar direla eta, emakumeok benetako lotsa dugu geure gorputza ikutu eta aztertzeke, gure esperientziaren sortzaile izateko. Lotsa dela eta ez dela, ezinezkoa zaigu gure orgasmora iristea masturbazioaren bitartez. Hauekin zera adierazi nahi nuke, beharrezkoa dela bakoitzaren plazerra lantzea eta gorputza ezagutzeko eta sententziazko esperimenduetan, gure gidari bihurtzea.

Asko esztatzen gara baina orgasmora ez iristek beldurtzen gaitu, ondorioz ez gara saiatu ere egiten, honela gure erantzun sexuala erreprimatuz. Arnasa ere eszitazioarekin sakonagoa izaten da, baina besteak ez jakiteko zein gustora gauden, hau geldiarazten dugu.

Honela ere orgasmoaren sententziazko txikitzen ditugu.

Ezin dugu guregan plazer gehiegi onartu, gurea ez balitz bezala sentitzen dugu, eta beraz orgasmoak baditugu ere, izan zitezkeen baina intentsitate gutxiagokoak dira. Gehiegi eskatzeak beldurtzen gaitu eta besteak oso exigenteak garela pentsatzea. Gainera gizon batekin gaudenean, batzutan berarekin goxo-goxo egotea da gure nahia, baina ez koitora iristea; bera erekoizten dagoela eta

koitora obligatuak sentitzen gara. Gaizki pasako duen sententziazko aztoratzen gaitu. Badirudi beraientzat orgasmo bat ez izatea fisikoki mingarria izan daitekeela. Baina esztatzea eta orgasmo bat ez izatea guretzat ere inkomodo bihurtzeko era berean. Bada amatearen papera emakume paperean bihurtzeko garaia.

Bakoitzaren eszitazioa denbora bat darama eta "denbora" dela medio (zein lehenago eszitatatu, zein beranduago), antsietate honek traba besterik ez du suposatzen eszitazioa lortzeko. Erritmo pertsonalak errespetatu behar dira. Tipoa gure plazerrean kontzentratzen bada, orgasmoa izateko presioa sentitzeak beldurtzen gaitu, ondorioz ez dugu izaten. Gainera elkarrekin batera

izatea nahi genuke. Baina zer garela uste dugu! Programatutako makinak akaso... Plazer iturri da bakoitzak bere momentuak izatea.

Kulpabilitate sententziazko, gauden pertsonarekin ditugun arazoak, hauek inkonszienteki orgasmoa baztertera eramaten gaitu, gurea den plazer hori ez eskeintzeagatik. Momentua da bizitu behar dena plazer guztiarekin eta inolaz ere etorkizunerako ikusminarekin. Eta ondoren bakoitzak jarri diezaiola bere plazer eta eszitazioari izena.



Ainhoa Iturbe



GILANO

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

LIBURUDENDA
Baltasar Etxabe 7
Tlf: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxes. 860169

Alberdi
GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155

Perretxikoen garaia da!

Perretxikoak biltzeko zaletasuna asko hedatu da aspaldi hontan gure artean. Hedaketa hori ez dakit ona edo txarra den. Izan ere, batzuentzat ez da oso gustagarria lehen beraientzat bakarrik ziren perretxikoak orain beste batzuekin banatu behar izatea.

Hala ere, perretxikoak biltzea denok egin dezakegun gauza dela pentsatu behar genuke. Dena den, zaletasun horrek ezagupen batzuekin batera etorri behar lukeela iruditzen zait. Zeren oraindik badago "Amanita Phalloides" perretxikoa jan eta pozoitzen denik ere. Euskal Herrian bertan, perretxikotan hain jantzia omen dagoen herrialde hontan ere gertatzen dira horrelako pozoiketak ere, eta nahiz eta denok arlo horretako liburuak irakurtzearen zaleak ez izan, bestela ikasten dutenek ere perretxiko horren eta beste arriskutsu batzuen berri izan behar lukete. Aurten gainera eguraldia dela medio edo, ugari azaldu da aipatutako perretxikoa gure basoetan. Arrisku hori, nahasten deneko perretxiko antzekoaren hurbiltasunaz areagotzen da; gibelurdina, alegia.

Lehenik esan dezagun gibelurdina deitzen zaion perretxikoa berez bakarra dela. Baina badago beste bat txarraren antzekoagoa dena, perretxikozale gehienentzat gibelurdina hori ere, eta jateko ia gibelurdin benetakoa bezain ona. Egia esateko, beste moeta bat izan arren, horri ere gibelurdin deitzea legezkoztat joko nuke.

Ez da oso zaila bereiztea: gibelurdinek ez dute ez bolbarik eta ez eraztunik, txapela kirtenetik banatzen zaila da eta kirtenak karea dirudi puskatzerakoan; "klak" egiten du, alegia. Pozoitsuak berriz (esan dezagun hilkorra dela), eraztuna eta bolba ditu, txapela errez banatzen da kirtenetik, eta hau oso haritsua da. Biek

ere txapelaren kolorea berdea dute, baina esperientzi pixka batekin kolore hori berdina ez dela konturatu gaitzke. Lehen esan dudan bezala, aurten ugari atera da aipatutako perretxiko pozoitsua eta gainera hilgarria, eta beti gibelurdinaren inguruan, arreta haundia jarri ezean nahasteko moduan; beraz hortatik pixka bat ipintzea eskatzen zaigu.



Russula Virescens, gibelurdina.

Amaniten artean perretxiko pozoitsu eta susmagarri asko daude, baina nik beste bi azpimarratuko nituzke: kuleto faltsua (Amanita Muscaria) eta lanperna txarra (Amanita Pantherina). Lehen, jateko hain goxoa den kuletoarekin (Amanita Caesarea) nahastu genezake. Bigarrena berriz, gure inguruan jaten ez den baino nahiko goxoa omen den ardotsuarekin (Amanita Rubescens).

Bereizketak: kuleto faltsuak ia bolbarik ez du, txapel gorriaren gainean puntu zuri batzuk ditu gehienetan, eta batez ere kirten eta orrien kolorea zuria dela azpimarra dezakegu, kuletoak horiak dituen bitartean. Biek dute eraztuna, zuria Muscariak eta horia kuletoak. Lanperna txarra itxuraz kuleto faltsuaren antzekoa da, baina kolorez ezberdina. Txapela marroia dauka, puntu zuri-zuriz jantzia, bere ertza ildaskatua delarik, eta eraztun txikia eta baxua du. Ardotsuak puntu ez hain zuriak, txapelaren ertza ildaskatu gabea eta eraztuna altuagoa eta haundiagoa dauka. Bestalde, ardotsuaren mamiak gorritzeko joera du eta Pantherinarenak beti mantentzen du bere kolore zuria.

Azkenik, gogoratu nahi nizueke azaroaren hasiera aldera **ASTE MIKOLOGIKOA** izango dela. Aukera ederra izango da perretxikoei buruz zerbait gehiago ikasteko.

Joxe Joakin Aizpurua

Auto - Konponketak

ELKAR



Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201



KABI
TABERNA - ZUMAIA
Tfnoa: 143379

Nola esaten da euskaraz...?

Zumaiako AEK euskaltegiko lagunek kanpaina bitxia egin dute aurtengoan. Herriko hainbat taberna eta dendatan kartel ugari jarri dituzte, eta hauetan zenbait ariketa egitera gonbidatzen gaituzte.

Nola esaten da euskaraz “me gustas”? Eta “he puesto las lentejas a remojo”? Eta “el profesor me tiene manía”?

Era honetako galderak, esaera zaharren esanahiak eta antzeko ariketak proposatu dizkigute eta beti ere epe baten ondoren erantzun zuzenak jarri dituzte orrian bertan. Erantzunarekin konforme geratu ez denik ere izan da, eta horrela baten batek “lentejak” ezabatu eta “dilistak” jarri zuen. Ez dugu uste hainbesteko garbizaletasunik behar denik, Zumaiarako behintzat.

Baina polita izan da jendea esaldi hauei buruz eztabaidan ikustea. Hain euskaldun sentitzen garenoi zenbait arlotan hankamotz gaudela erakutsi digu.

Bestalde, arratsalde batean Zumaiako auto guztietan salaketa batzuk “azaldu” ziren, goian ikus daitekeena bezalakoak hain zuzen. Salaketa hauen bidez jendea AEKn matrikulatzera gonbidatzen zuten, baina jende askok “susto” ederra hartu zuen autoan papertxo hau ikusita.

Azkenik, EGA prestatzeko ikastarorako izena emateko epea zabalik dagoela gogorarazi digute “Txomin Agirre” euskaltegiekoek. ■

ARIKETAK

Honako ariketa hau herriko zenbait dendatan banatu zen. Hemen doazkizue lau esaldi eta bakoitzak dituen lau aukeren artean bakarra da zuzena. Erantzunak behean aurkituko dituzue.

1- Ez dugu astirik izan mokadutxo bat jateko ____.

- a. ezezik
- b. ere ez
- c. bakarrik
- d. baino

2- Gurean ____, auzoan ____, izaten dira gatatzak.

- a. ezezik / ere
- b. ezik / bai
- c. aldiz / ere bai
- d. hala ere / bezalaxe

3- Hori eta ahuntzaren gauerdiko eztula... bat!

- a. Hori eta indioilarraren mukia... bat!
- b. Hori eta zakurraren putza... bat!
- c. Joan zaitez antzarak ferratzera!
- d. Hori tximiaren kea baino alferragoa da.

4- Ilea saretzen ari zaizu

- a. Ilea urdintzen ari zaizu.
- b. Burusoil gelditzen ari zara.
- c. Oso ile latza daukazu.
- d. Ilea gero eta ilubago daukazu.

1-D-2-a-3-b-4-b

ERROTA
ERROTA
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte. 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera. 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA

AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

ARGIA

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

Huntza, o.k.

DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

SERIGRAFIA

KUKUTZ

baltasare txabe 7 ZUMAIA

Telf: 860569

Ford

Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 20750 ZUMAIA

Telefonoa: 861433
Fax: 861067

125 urte

Karmeldarrak gure artean

Patxita Etxezarreta zumaiarraren ekimenari esker iritsi ziren duela 125 urte gure herrira karmeldarrak. Lehen asmoa emakumeei hezkuntza egokia eskeintzea izan zen, baina urteak ez dira alperrik pasatzen, eta Maria ta Jose ikastetxea uneoro garaiei egokituz joan da. 125. urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi prestatu dituzte, urte osoan zehar zabalduak.



Zumaiar asko pasa dira karmeldarren eskuetatik.

1871ko azaroaren 26an hasi ziren lanean karmeldarrak gure herrian. Ordutik gaur egunera arte milaka zumaiar pasa dira euren eskuetatik, milaka zumaiar izan dira euren hezkuntza proiektuaren partaide. Baina non eta nola jaio zen Vedrunatarren hezkuntza proiektu hau?

Maria ta Jose ikastetxeko Begoña Gandiagak adierazi digunez, 1826. urtera jo beharra dago galdera hauei erantzuteko. "Joaquina de Vedrunak izan zuen ideia eta berak bultzatu zuen proiektua". Joaquinak 12 urtekin garbi zuen monja izan nahi zuela, baina galarazi egin zioten gazteegia izateagatik. 16 urte zituela gurasoek senarra aurkitu eta ezkontzea beste erremediorik ez zuen izan. 9

seme-alaba izan ondoren, 34 urterekin alargun geratu zen. "Apaiz baten eraginez, bere lana heziketa munduan burutzea erabaki zuen. Garai hartako emakumeen hezkuntza maila ikusita, bere ahaleginak hauengana zuzendu zituen".

Lehendabiziartzelona inguruko herritan hasi zen, 1826. urtean. Gero, proiektuak arrakasta zuela ikusirik, Madril, Errioxa eta Gasteizera zabaldu zen.

Zumaiara nola iritsi zen?

Patxita Etxezarreta izan zen karmeldarrak Zumaiara ekarri zituena. Patxita ere, Joaquina bezala, emakumeen hezkuntza mailaz zegoen kezkatuak. Bilboko apaiz baten

bitartez ezagutu zuen karmeldarrak Gasteizen egiten ari ziren lana. Irtenbidea aurkituta, Kataluniara idatzi zuen karmeldar talde bat eskatuz. 1871ean hasi zen lanean talde hau.

Hasiera batean, Patxita Etxezarretak zituen lursailean hasi ziren emakumeen hezkuntza garatzen. Gero, San Jose kalean eraiki zuten ikastetxea. 100 urte iraun zituen ikastetxe honek. 1971ean, Luis Peña Gantxegi arkitekto ospetsuak gaur egungo eraikuntza modernoa egin zuen.

Garaiei egokitu beharra

Duela 20 bat urte ikastetxeak bere lehen aldaketa nabarmena izan zuen. Ordura arte emakumeei zuzenduriko hezkuntza eskeintzen



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA



Juan Belmonte 6
ZUMAIA

Tnoa: 860415

bazen, mutilei atek zabaltzea erabaki zen. Ez da ahaztu behar, garai batean "Batxiler laborala" ere bazegoela ikastetxe honetan. Bertatik idazkariak e.a. ateratzen ziren. OHO-ren sorrerarekin desagertu zen batxiler hori.

Euskerak ere bilakaera nabarmena ezagutu du. Duela 24 urte hasi ziren ikasgai gisa ematen. Gero, B eta D ereduak ezarri zituzten. Duela 12 urtetik hona, herriko hezkuntza batzordeak D ereduak soilik eskeintzea erabaki zuen (dena euskeraz).

Garaietara egokitzeko ahalmen horri esker bete ditu proiektu honek hainbeste urte. Beste hainbeste bete ditzala! ■



Gaur egun dena D ereduak ematen da Maria eta Jose ikastetxean.

Ospakizunak urte osoan zehar


125. urteurren honek ospakizun bereziak merezi zituela pentsatu dute karmeldarrek, eta horrela zenbait ekitaldi antolatu dituzte urte osoan zehar. Otsailaren 2an izan zen lehen festa. Egunez gazteei zuzendurikoa izan zen, eta gauean ekitaldi bat egon zen gurasoekin.

Maiatzaren 22an Santa Joakina eguna ospatu zen, beti garrantzitsua izanik, aurten inoiz baino indar gehiago izan duela ahaztu gabe.

Urriaren 5ean, ikasle ohien festa egin zuten. Eukaristiaren ondoren, haurrek antolaturiko ekintzak eta argazki erakusketa egon ziren; eta amaitzeko ikasle ohiekin egindako **BAZKARIA**.

Falta diren ekitaldiak

Azaroaren 26an **IKASLEEN FESTA** egingo da, eta 28an **KULTURA EGUNA**. Amaitzeko, abenduaren 1ean **MEZA** izango da goizeko 10,30etan. Bertan On Jose Maria Setien gotzaia izango da.



600 lagun baino gehiago bildu ziren bazkarian.



SOLOZABAL AUTOESKOLA



P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.



Loitz

% 10eko

beherapena
eskola-material
guztitan

Erribera 4
Tel./Fax: 143422

Alberdi eta Enbil zestalari zumaiarrak profesionaletan izango ditugu

Eusko Basquerekin 3 urtez sinatu ondoren hil honen 6an debutatu zuten

Azkenean lortu dute Gotzon eta Luis Marik profesionaletara saltoa ematea. Iaz ere hor ibili ziren urrats hori eman nahian, baina benetako aukera orain iritsi zaie. Aurretik duten erronka ez da txantxetako, batik-bat afizionatutan erakutsitako nagusitasunarengatik itxaropen handiak baitaude 2 pilotariengan.

Hil honen 6an egin dute debuta, profesional mailako Munduko Txapelketaren hasiera baino lehen, hain zuzen ere. Irabaziz hasi dira gainera, Altuna eta Castro betaranoen aurka 30 eta 18ko emaitzaz lortu baitzuten garaipena.

Azken urteotan afizionatutan joku maila ikusgarria azaldu dute, eta hainbat titulu poltsikoratu. Batzuk aipatzearren: taldekako Europako txapeldunak eta 22 urtez azpiko Kubako Munduko Txapelketan bigarren postuan geratu ziren, Gotzon Enbil eta Luis Mari Alberdi. Afizionatuak atzean utzi eta Eusko Basque enpresarekin 3 urteko kontratua sinatu dute. Bi pilotariek azaldu diguten bezala, "dana oso azkar gertatu da, hilabete baten barruan lotu da guztia, eta hil



Profesionaletako lehen garaipena ere eskuratu dute.

honetan bertan debutatzeko asmoa degu".

Ilusioz beteta, baina hankak lurraren gainean sendo dituztela azpimarratu dute. "Ilusioa eta gogoa ikaragarria degu profesionaletan hasteko, baina badakigu ez dala afizionatuetan bezela izango. Horregatik argi eta garbi daukagu helburu zehatzik gabe, lasai-lasai hasi behar degula". Zentzu honetan gainera ez omen dute inolako presiorik jasan enpresaren aldetik, hau da, bizkar gainean duten palmaresak ez duela eraginik izango.

Gotzonek 19 urte ditu eta Luis Marik 22. Beren ametsa bete da,

baina argi dute honek ez diela beren bizitzan aldaketarik ekarriko. "Kontratu bat, soldata bat izateak ez du ezer esan nahi. Guk geure ikasketetan jarraituko degu. Orain dana polita izan daiteke, etorkizunean ere pentsatu egin behar da, ordea, eta oinarri bat izan".

"Zumaian badago jendea gu bezela profesionaletara iritsi daitekeena"

Hasiera batean jabetzen dira ez direla onenekin arituko; beren asmoa

Parai
Informática

Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

xirula



ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g
Tel. 861705

20750 ZUMAIA

orain, pilotan ondo jokatzea eta ahalik eta partidu gehien irabaztea da, modu honetan onenekin jokatzeko aukerak handiagoak izango baitituzte.

Felix, Katxin Uriarte, Remen... zestalari handiak ditugu egun, punta-puntakoak; dena den, hauei ez diete batere beldurrik. *"Honbre, beraien eta geure artean momentu honetan, diferentzia handia dago, bai joku aldetik baina batez ere esperientzia gehiago dutelako. Denborarekin beraien parean jartzeko esperantzak baditugu, nolana ere"*.

Ez dute helburu zehatzik markatu nahi. Partiduak irabazi, ondo jokatu eta gero gerokoak

Aitorpen bat ere egin digute bi pilotariek. Luis Marik bizkor asko adierazi digu (gogo dexenterekin gainera), Iparraldeko Mitxelena aurrelariaren aurka jokatu nahiko lukeela. Gotzonek berriz, alderantziz, berekin oso gustora osatuko lukeela bikotea. Izango dituzte arrazoiak bai, hain garbi esateko.

Zumaiako eskolako emaitza

Biak Zumaiako zesta-punta eskolako fruituak dira, eskola honetan hasi ziren lehenengoetarikoak. Beren hitzetan, *"Zumaian badago jendea gu bezela profesional izatera iritsi daitekeena. Dana dala, oraindik oso gazteak dira eta ikusi egin behar, hemendik urte batzuetara*

segitzen duten edo ez. Ez pentsa hain erreza danik". Hala ere onartzen dute profesioaletara heltzeko burutu duten bidea nahiko azkarra izan dela, ia-ia konturatu gabe eginikoa.

Beraiekin egindako solasaldiari amaiera emateko, estualdi batean jarri nahi izan ditugu. Batetik, Alberdi-Enbil bikotea profesioaletan munduko txapeldun noiz izango diren galdetu diegu. *"Bueno... ez dakigu... poliki joan behar da eta gero, hemendik pixkatera hitz egingo degu"* (en fin, ez dutela busti nahi izan). Ondoren bakoitzari eskatu diogu bestearen jokuan destakatzen duen zerbait nabarmentzeko. Gotzonek Luis Mariren *"dituen hanka arinak, eta erreboteatzeko habilidade handia"* aipatu ditu. Luis Marik aldiz, *"Gotzonen eskuin kolpea oso ona da, eta salto ikusgarriak ere egiten ditu"*. ■



Jende gehiago badator atzetik, Antxon Alberdi, adibidez.

izerdi tantak

Masajista polikiroldegian

Jendearentzako interes handiko kontua izan daitekeela kontuan hartuz polikiroldegiko gela bat masajeak emateko prestatu da.

Gela honen erabilpena arautzeko erabaki batzuk hartu dira, hauen artean lehiaketa bat egitea polikiroldegian jardungo duen masajista nor den aukeratzeko.

Lehiaketa honen oinarriak udaletxean daude eta urriaren 18a bitartean aurkez daitezke eskaerak.



Ikastaroak

Judo, karate, aerobic eta mantentze gimnasia egiteko ikastaroak antolatu ditu udal polikiroldegiak. Ikastaro bakoitzak bere prezio eta ordutegia du, bazkidetzaren eta adinaren arabera. Izena eman nahi baduzu, edota informazio gehiago lortu, azaldu polikiroldegi bertara, edota deitu 862021 telefonora.



Gehienek 5-10 jasoaldi eman zizkioten 100 kiloko harriari. Ez putzein, Jokin!!

BABORRAK NAGUSI

Arrauneko denboraldia amaitu ondoren, froga xelebrea jokatu zuten arraunlariek Odieta pelotalekuan irailaren 21ean. Baborrak estriborren aurka aritu ziren herri kiroletan. Harrijasotzen aritu ziren aurrena, eta honetan Tomas *Endañeta*ren esperientzia agerian geratu zen, 22 jasoaldi eman baitzizkion 100 kiloko harriari bi minututan. Gero txingetan, zakuak eramaten, trontzan eta sokatiran jardun zuten, eta baborrak erraz nagusitu ziren.



19an hasiko dira

Urriaren 11n amaituko da aurtengo plaieroetarako izena emateko epea. Talde bakoitzak 25.000 pezeta ordaindu beharko ditu eta jokalaria bakoitzaren seguruagatik beste 2.000. Urtarrilaren 15a bitartean jokalaria berriak sartzeko aukera egongo da, beti ere 15eko muga pasa gabe. Ez dakigu aurten zenbat talde izango diren, baina 10 inguru izango dira seguruena ere.



ENTRA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaia Plaza 15
Tlf: 862458



BUSTIDI-ZUSTITEGUA, 4-A
ZUMARRA
TEL. 062051

HERRATEGIT
URDATEGIT



ENTER
INFORMATICA

IKASTAROAK

Baltasar Etxabe kalea z/g
Tlf: 861175 - Faxes: 860550

KOSTA GAS



GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert
ELEKTROGAILUAK



Mertxe Aizpurua
expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

GURE TXOKOA
TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia



EREMUAK 96

Zarautzen urtero izaten den Eremu urriko hizkuntzen zinemaldiaren garaia heldu da. Oraingo honetan urriaren 21etik 26ra bitartean iraugo du eta bi sail desberdin izango ditu. Alde batetik **SAIL OFIZIALA**, eta bestetik **SAIL PARALELOA**.

Zinemaldi honetan ohi den bezala guk agian inoiz entzun ez ditugun hizkuntzetan egindako filmeak ikusteko aukera izango dugu: kazah, moré, wolof.... Emanaldi gehienak, 19:30 eta 22:00tan izango dira, Modelo zineman.

IKASTARO UGARI AUKERAN



Ikastaro ugari antolatu dira Forondan eta gehiena urrian bertan hasiko dira. Argazki ikastaroa, Kontrol mentala, Antzerkia, Pintura Tailerra, Brikolajea eta Bolilloak daude oraingoz. Ikastaro jakinen bat noiz hasten den edota zenbat ordaindu behar den jakiteko nahikoa duzu Forondara deitzea.



DIPOSITIBA SAIOA

Udazkeneko emanaldiak hasi dira dagoeneko eta hilaren 25ean **NEKANE INTXAUSTI** etorriko zaigu "Cuevas; hijas del agua y de la roca" emanaldia aurkeztera. Ohi bezela, arratsaldeko 7,30etan izango da, Forondan.

IPUIN KONTAKETA

Udal liburutegiak antolatuturik, Itziar Zubizarreta ipuin kontalariak gaztetxoei zuzendutako saio bat emango du **ITSAS IPUINAK** gaitzat harturik. Saioa urriaren 30ean haurren liburutegian izango da, arratsaldeko 6etan. Datozen hilabeteetan ere izango dira saio gehiago.

ANTZERKI EMANALDIA



Jon Idigorasen hitzaldia Hil honetan Jon Idigoras, **Alternatiba demokratikoari** buruz arituko da Oxforden (iragarriko da).

Urriaren 26an "Umekeriak" antzezlanak ikusteko aukera izango dugu. Antzezlan horretan **Jose Ramon Soroiz** ezaguna dugu aktore bakarra, eta lanaren izenean dioen bezala, umearena egiten ikusiko dugu. Aita Mari zineman izango da, **gaueko 10,30etan**. Sarrera **500** peztakoa izango da. "Umekeriak" 14 urtetik gorakoentzako antzezlanak da.

ARTE MAHAINGURUA

Badirudi azkenean urrian egingo dela "Eskultura publikoa Euskal Herrian" gaiari buruzko mahaingurua.



BASUSTA ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073

20760 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 143143



Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15

Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330



IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta gozatzazu ahal dezun neurrian



Euskaraz

- Ixtorio hautatuak
- Zientzia eta kultura
- Ponttokeriak
- Olerkiak
- Ideia
- Heriotzaren erregina
- Kanpotarra

- Roald Dahl
- Martin Gardner
- Jean Haritschelar
- Loramendi
- Frans Masereel
- John Milne
- Norman Whitney

Gaztelera

- Los españoles y los euskaldunes *Joxe Azurmendi*
- Ella cantaba boleros *Guillermo Cabrera Infante*
- Hijos de la calle *Lorenzo Calcaterra*
- Itinerario sentimental *Pío Caro Baroja*
- Los amos de la noche *Brian Hodge*
- Contra la interpretación *Susan Sontag*
- El planeta americano *Vicente Verdú*

Gaztetxoentzat

- Jojo, pailazo baten historia
- Y decirte alguna estupidez, por ejemplo, te quiero

- Michael Ende
- Martín Casariego

Haurrentzat

- Xolak badu lehoien berri *Bernardo Atxaga*
- Ispilu urdinak *Malentxo Retegi*
- Tximino bihurria *Miquel Sitjar*

Txartel berriak liburutegi informatizatuan

Bazkideentzako txartel berriak egin dira, informatikoki erabilgarriak izan daitezen. Duela urtebete liburutegiaren informatizazio integralari ekin zitzaion (Absys aplikazioaren bidez), eta gaur egun 4.000 liburu dira informatikoki katalogaturik daudenak.

Liburutegiko fondoei dagokienez, hiru atal nagusi bereiz daitezke: batetik, 9.000 liburu inguru daude: erreferentzi liburuak (entziklopedia...), kontsulta liburuak

eta literatura; bestetik **egunkariak** (6); eta azkenik, **aldizkariak**, mota eta gai desberdinekoak: Argia, Elhuyar, Muy interesante, Natura, Fotogramas, Geo...

Guztira 1.279 bazkide ditu liburutegiak, hauetatik 502 haurrak. Bazkideok, badakizue, liburutegitik pasatzen zaretenean ez ahaztu txartel berria jasotzea. Ez zaretenok, nahikoa duzue 500 pezeta eta datu pertsonalak ematea 15 egunetarako 3 liburu eskuratu ahal izateko.

ILE APAINDEGIA

Merca
Uranga

Etsezarreta, 19 20750 ZUMAIA
Telefonoa: 862342

JOXE MANUEL

ONCE

Kupoiak tailer, etxe eta dendetara eramaten dira.
Tel: 862347-861001

JUSTA TABERNA

EGUNEROKO BAZKARIAK

Erribera kalea 20

ZALLA

Taberna - Erretegia
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK

San Pedro, 4 - Zumaia Tif: 862387

Amertze

Erribera kalea 6
Tel / faxa: 861707

EGUZKI PUB

KOKTEL BEREZIAK

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

PO maketa bat grabatzen ari da

PO musika taldea maketa bat grabatzen aritu da azken asteburuetan, eta badirudi urriaren azkenalderako salgai jartzeko moduan izango direla. San Migel egunaren bezperan Artadin aritu ziren AGE eta Atxantatu taldeekin batera, eta inpresio bikaina erakustez gain jarraitzaile sutsuak dituztela frogatu zuten.

Bestalde, gogoratu ENTZUN! aldizkariaren 2. zenbakia dagoeneko kalean dela eta Zumaian Ihintzan eskuratu dezakezula, 300 pezetaren truke. Oraingoan ere oso gai desberdinak eta interesgarriak jorratzen dira.



Fitxaje eta guzti azaldu ziren Artadi aldera. Uxua da laugarren kidea.



STRIPTease
(1996) 115 min.

ZUZ.: Andrew Bergman
AKT.: Demi Moore
Burt Reynolds

Aurreko urteko "Showgirls" ikusi ondoren, eta oraingo "Striptease" honek jasi dituen kritika gogorak irakurri ondoren, badirudi Estatu Batuetako klubetan bere gorputza erakusten duten dantzari hauek ez dutela zorte haundirik zine munduan. Zine kritikoeak idatzi dutenari kasu egiten badiegu behintzat, azken hilabetetako pelikularik txarrenaren aurrean gaude.

Striptease filmaren istorioa honako hau da: FBIko funtzionari ohi bat, toplesseko dantzari lanetan hasten da, zazpi urteko alabaren zaintza berreskuratzeko diru beharrean baitago. Mafiarekin arazoak dituen politikari bat bere bizitzan sartzen denean zenbait arazo sortzen zaizkio.

Istori horrekin ezin oso urrutira joan, baina lasai, pelikula hau Demi Moore-k gimnasioan landutako gorputza erakusteko aitzakia besterik ez da eta. Gainera, kontu korrontea ederki puztu zaio arropa gutxirekin jende aurrean dantza egiteagatik. Galdera honako hau da: nahikoa al da bularrak eta ipurdia erakustea pelikula on bat lortzeko? Erantzuna: Ez. Gainera, gauzak zeharo okertzeko Burt Reynolds-ek daraman peluka ikustea besterik ez dago... Penagarria.

Zine kritikak

EGIN DV Egunkaria

Zine kritikak	EGIN	DV	Egunkaria
Striptease Zuz: Andrew Bergman	★	★	★
Eraser Zuz: Charles Russell	—	★★	—
Twister Zuz: Jan de Bont	★	—	★★



TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Tel. 14 30 85
Fax. 43 06 37

JE MAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera 1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA



Motxian hi!

Nor: Andoni Manterola
Nola: Zaki
Zer: Bertso-txistelaria

- TXISKOLA ALA TXISTORRA?
- TXISTORRA.
- GUSTOKO JAKI BAT?
- KILO BAT ANGULA.
- ANDONI BAI MUTILA...
- DANIAN ABILA.
- NESKAREKIN JOATEKO ZUMAIKO TXOKO ERROMANTIKO BAT?
- NIK EZ DIAT HOLAKORIK EZAUTZEN.
- ALAI BIZITZEKO ERREZETAREN BAT?
- NESKA EAR BAT EUKITZEA ETA DIRU PIXKAT.
- ZER ESKATUKO ZENIOKE ZUMAIKO ALKATEARI?
- PORTU DEPORTIBORIK EZ EGITEA.
- TXISKOLATIK PASA IZANA NABARI AL DUZU KALEAN?
- TARTIAN-TARTIAN BAI. HASIERAN NABARIAGO ZAN.
- BERTSOLARI BAT?
- LAZKAO TXIKI ZANA.
- BERTSOTAN EUSKAL HERRIKO TXAPELA IRABAZIZ GERO NORI ESKEINIKO ZENIOKE?
- EUSKAL HERRIAREN ALDE LAN EGIN DUTENEI, PRESOEI.
- BATAIOAN ANDONI DE LA CALZADA JARRI OMEN ZIATENIZENA.
- EHTO NO PUDE ZEH...
- EUSKAL HERRIKO MUSIKA TALDE BAT?
- LA POLLA.
- GOIZEAN JEIKI ETA LEHENBIZIKO GAUZA?
- ERROPA JANTZI.
- AMETS BAT?
- EUSKAL HERRIA LIBRE IZATEA.
- AKTORESA BAT?
- KIM BASINGER

Kontu-kontari

BELDURRA ESKOLAN

Hura beldurra eskolara joateko! "Que salga al encerado... (denok burumakur pupitre atzetan ezkutatuta) fulano". Hori ni nauk. Arbel aurrean eskuan karea hartuta, belaun koxkorrak dardaraz eta praileak: "Una casera se va al mercado a vender..." Beldurraren beldurrarekin ez genuen ezer ulertzen. "¿Has entendido?", "No padre". "Así me gusta. Si no entendéis el problema, me decís claramente y yo lo repetiré mil veces si hace falta". Bigarren aldiz "¿Has entendido?". "No padre". "¿Zopenco! ¡Majadero! ¡Burro!" Eta hartzen genuen zaplatekoaz egun osoan belarrarian piiiii... txistua entzuten.

Ikasgaia buruz ikasi eta praileak txalo jotzen zuenerako ia dena ahaztuta. "Vamos a ver, fulano, ¿qué es acantilado?". "Acantilado es... Acantiladoo eeeeeesss... Acantilaadoooooo eeeeeesss...". "Mira, no me importa que no me lo digas como lo pone en el libro. Dilo a tu manera". "Pues eso, acantilado es eso que está en rio y por donde sale la mierda y eso..." Zapla!! Piiiii.

Trabuko, "Gerraondoko Zumaia", Orrua aldizkaria (9. zenbakia)



CARLIN OFIMARKET

GEHITZEN DOAZEN EROSKETEKIN,
"POCAHONTAS" BIDEO-ZINTA
OPARITZEN DUGU.
ESKOLA-MATERIALA.
FOT. 5 PEZETAN
Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN SARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
- 24 orduetan
- Zeure etxean
- Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR FOTOKOPIAK



-Enkuadernaketak
-Plastifikatzeak
-Fax publikoa
-Bulegoko materiala
Basadi 14, behea - Tf: 143120

LANA

Aldizkako lanak egiteko mekanografoa behar dugu. Eskakizunak: euskara maila ona (alfabetatua) eta makinaz (ordenadorez) azkar idaztea. Baloratuko da beste hizkuntzak jakitea (gaztelera, ingelesa, frantsesa) eta ordenadoreen erabilera (PC eta Macintosh). Interesatuak deitu 148065 telefonora.

Ostiral eta larunbat gauetan haurrak zainduko nituzke. Deitu 861914 telefonora (Esther).

AGURRAK

Aerre eiak MATZAKATU (1-3) JA JA.

Estitxu! Norekin pasa zenun urtebetetze gaua? Politt horrekin edo Robert de Niroekin, edo...

Xam, Gaixka ateatzen baek, katu ingo haut! Anda kon lux, kontux!

Buitraker, batxupako 3kin nahikua ta gehiegi.

Ma al hator Txarrira, hi? Earki pasako ñu!! Telfonua rebixtan zion!

Ze ingo det, ze ingo det, ze ingo det "katxarorikan" gabe.

Larunbat gauetako inspirazioa papapelera pasa eta buzoira bota!!

Salerosketak

YAMAHA 250 Special motoa salgai. Sei urte ditu eta beti aterpean egin du lo. 250.000 pezeta, urtebeteko aseguruua eta extra dexente barne. Tel. 861224

Salmenta puntuak

- JESUSKOA
- ERROTA (ERRIBERA)
- ERROTA (BASADI)
- ERROTA (J.BELMONTE)
- OGI BERRI (AMAIA)
- OGI BERRI (BASADI)
- ARKUPE OKINDEGIA
- AIZPURUA
- LIBURUDENDA
- OLANO LIBURUDENDA
- LOITZ LIBURUDENDA
- ALAI JANARIDENDA
- NIKOL KAFETEGIA
- INPERNUPE
- ZALLA ERRETEGIA
- FOTO GAR
- ARROA BEHEA
- SAN TELMO
- JANARIDENDA

Ur-gintza sl

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g Tel: 148082
78 Posta kutxa Fax: 148081
20740 IRAETA - ZESTOA

KALARI TABERNA
JATETXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA

AHOLKULARITZA
JRURE
ASESORIA

Erribera, 17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45
Tel.: 851485




UROLA
TXIRINGITOA

Eguneko menua
Parrila bereziak

Gernika parkea

Tel.: 862656

Kamixetak



Itziar Manzisor, Pili Etxabe eta Jesus Mari Martin izan dira jaso genituen postalen artean zozketa egin ondoren sarituak izan direnak. Bakoitzak **kamixeta** eder bana jaso zuen, eta hor dituzue argazkian, irrifartsu.

Bestalde jakinarazi nahi dizuegu dagoeneko kamixetak jaso ditugula Zalla eta Nikoletik. Beraz, eskuratzeko asmotan bazinen hurrengo **udaberrira arte** zain egon beharko duzu.

L

ehiaketa Goxoa

Berriz ere hasi gera lehiaketa honekin eta oraingoan galdera honako hau da: **noiz inauguratu genuen Erribera kaleko buzoia?** Asmatzen dezuenen artean zozketatuko degu **Txapartegi Gozotegiak** emandako tarta ederra. Horretarako **urriaren 25a** baino lehen utzi beharko dezu erantzuna, sobre batean sartuta Foronda, Foto Mertxe, Aizpurua liburudendan, Txapartegin bertan edota GURE BUZOIAN. Zorte on!

